



BARREN

TOKIKOM

Ibilbide oso bati aitortza



ELGOIBAR 2018 AZAROA



50€-KO EROSKETA 40€-REN TRUKE

Baldintzak:

- Baliagarria 2018/11/05etik 2018/11/30era arte.
- Elgoibarren erroldatuta daudenentzat.
- Bonu bat NAN (helbidea indarrean izan behar da) edo erroldatze bakoitzeko.
- 100€ arteko bonuak meta daitezke.
- Gutxienez, 25€-ko erosketa egin behar da.

Bonuak azaroaren **5**etik **30**era erosi ahal izango dira.
(agortu arte)

Salmenta:
Kalebarren Plazan

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
9:00-13:00
17:00-19:00

ANDER SORALUZE

Informatikaria



Aspaldi konturatu nintzen Interneteko hainbat eta hainbat lekutan erregistratzeko pasahitz berbera erabiltzea ez zela oso ideia ona. Inork ezagutuko balu, leku guzti horietara nire izenean sartu ahalko litzateke. Kasu batzuetan ez da oso garrantzitsua izango, baina bankuko webgunean, adibidez, min handia egin dezake.

Honen aurrean zer egin, ordea, ezin nuen asmatu. Leku bakoitzean pasahitz desberdin bat erabiltzea omen da soluzioa, baina, noski, nola gogoratu denak? Eta, txikieria badirudi ere, zein pasahitz

aukeratu leku bakoitzerako? Diotenez, onena ausazko letra eta zenbaki konbinazioak dira, ¡Alk93mHS99_2 modukoak.

Segurtasun sistema askoren ahulgunea, askotan, pertsonok izan ohi gara. Pasahitzak aukeratzeari, erraztasunagatik, asmatzen oso errazak direnak aukeratzen ditugu: 1111, seme-alaben izenak, jaiotegunak, txakur/katuen izenak... Hau da, pixka bat ezagutzen gaituen edonork, saiakera batzuk eginda, asma ditzakeen gauzak. Are txarrago, pasahitzok edonork ikus ditzaketen postitetan idazten ditugu sarri.

Guzti honetarako, noski, badaude so-

“Diotenez, onena ausazko letra eta zenbaki konbinazioak dira, ¡Alk93mHS99_2 modukoak”

luzioak: pasahitz kudeatzaile edo *password manager*-ak, adibidez. Hainbat aukera daude, baina, orokorrean, webgune desberdinetan dauzkagun erabiltzaile izen eta pasahitzak gordetzen dituzte, norberak gogoratu beharrik izan ez dezan eta, hauetan sartzean, gure ordeztuzte. Honela, ez dago arazorik goian aipatutakoaren moduko pasahitzak erabiltzeko.

Beste aukera bat, elementu fisikoetan (*token* deiturikoak) oinarritutako sistemak dira. Hau da, benetako erabiltzaileak bakarrik daukan gailu, giltz... fisiko bat erabiltzean. Token bat, adibidez, USB giltz bat izan daiteke, ala norberaren sakelako telefonoan bera. Azkenaldian, ordenagailuan Google-en webguneren baten sartzean, gure sakelakoan geu garelako baieztatuzeko eskatzen digu, inongo pasahitzik eskatu ordeztuzte. Era berean, telefonoa desblokeatuta izateko aukera daukagu, gure kotxeko irratiarekin bluetooth bidez konektatuta badago, ala gure etxeko wifi-ra konektaturik etab.



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Elizkerdiaren Erakundeak

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazita-koen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUB- LIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpilla, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odiozola, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:

ELGOIBAR
UDALAK
KULTURAREN ERAKUNDEA

LAGUNTZAILEAK:



MENDAKOIA



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► **MILA ESKER**

Eskerrak eman nahi dizkiogu Gotzon Garate Udal Liburutegiari Elgoibarko Ikastolako haurrei egindako harreragatik eta emandako azalpenengatik. Mila esker.

Elgoibar Ikastola

► **OHARRA**

Azaroaren 1eko jai eguna dela-eta, datorren astean ez dugu BARREN astekaria kaleratuko eta BARRENEko bulegoaria itxita egongo da. Hurrengo alea azaroaren 9an jasoko duzue.


BARREN



Jose Mari Gurrutxaga Pradera

2018ko urriaren 23an hil zen, 76 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Zure alaitasuna eta ahotsaren doinua
beti izango dira gure bihotzetan.***




Jose Antonio Iriondo Sangroniz

2018ko urriaren 18an hil zen, 77 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarenagatik
eta erakutsi diguzunagatik
beti izango zara
gure bihotzean.
Maite zaitugu,***

Etxekoak




Debabarreneko 75.000 laguni eskainiko die zerbitzua Eibarko Ospitaleak



Astlehenean inauguratu zuten Eibarko Ospitalea Iñigo Urkullu lehendakariak eta Jon Darpon Osasun sailburuak, eta datorren astlehenean jarriko dute martxan. Kronikoentzako ospitalea izango da, baina inguruko osasun zerbitzuak ere bertan bilduko ditu. Eibarko Ospitaleak Debabarreneko 75.000 biztanleei irisgarritasuna eta eskaintza sanitarioa hobetuko dizkie, baina Debagoieneko eta Lea-Artibaiko bizilagunei ere emango die zerbitzua. Lehen Mailako Arreta (familia-medikuntza eta pediatria), buruko gaixotasunak, erresonantzia magnetikoko talde bat (Osatek) izango duen Erradio diagnostikorako zerbitzua eta Errehabilitazio zerbitzua eskainiko dituzte. Era berean, kanpo-konsultetan 8 espezialitate eskainiko dituzte, 14 konsultetan. Azkenik, 20-24 oheko hiru ospitaleratzetate-unitate izango ditu, bi solairutan banatuta, guztira 72 ohe. Eibarko Ospitalea datorren astean zabalduko badute ere, ez ditu zerbitzu guztiak hasieratik emango, eskainiko dituen zerbitzuak era mailakatuan zabalitzen joango dira.

Azoka solidarioa egin zuten domekan KatuEder Taldekoek

KatuEder taldekoek animalien aldeko azoka solidarioa antolatu zuten domekarako, eta inguruko herrietako txakurren eta katuen elkarteko kideek ere hartu zuten parte. Besteak beste, umeentzako tailerrak, animalientzako materiala eta HEA (Harrapatu, Esterilizatu, Askatu) metodoari buruzko hitzaldiak eskaini zituzten. Kale-katu kolonien hazkundea kontrolatzeko metodo hau animaliak harrapatu, antzutu eta berriz bakoitza bere kolonian askatzean datza. Hain justu ere, kaleko katuek sortzen dituzten arazoei irten-bidea emateko sortu zuten Elgoibarren KatuEder elkarteak.



Hiart Compañonek hezur-muina behar du

Hiart Compañon 41 urteko emakumeari leuzemia gaixotasuna diagnostikatu diote, eta berearekin bateragarria den hezur-muina behar du. Donostiako ospitalean dago ingresatuta, eta kimioterapia tratamendua hasi du, baina hezur-muin transplantea behar du. Herriarrei egin die deia Hiartek, eta emaille egitera animatu ditu: "Gaur ni naiz beharra duena, baina bihar beste edonor izan daiteke", esan du. Emaille egiteko interesa dutenek ondorengo telefonoetan eskuratu dezakete informazioa: 943 007 000 (Gipuzkoa), 945 006 291 (Araba), 94 403 36 01 (Bizkaia), 900 303 404 (transfusio eta ehunen saila). Internetez www.euskadi.medulaosea.org webgunean aurkitu daiteke informazio gehiago.

Dislexiari buruzko jardunaldiak, Udal Liburutegian

Gotzon Garate Udal Liburutegiak dislexiari buruzko bi jardunaldi eskainiko ditu, azaroan 8an eta 14an. Dislexia zer den azalduko dute, eta etxean edo gelan jarraitu beharreko metodologiari buruz hitz egingo dute, besteak beste. Dislebi elkarteko adituek eskainiko dute hitzaldia, gazteleraz. 18:00etatik 20:00etara izango da.

'ONU' kaleko bizilagunek ospakizun berezia egingo dute azaroaren 10ean



Auzo sentimenduak batzen ditu *ONU* kaleko bizilagunak. Gaur egun Ermuaranbide kalea dena *ONU* izenez ezagutzen dute herritar askok, kanpotik Elgoibarrera etortzen ziren asko kale hartan jarri zirelako bizitzen. Berezi egiten du horrek kalea, eta auzotarrengan sortu den sentimendu hori aitzaki hartuta ospakizun berezia egingo dute azaroaren 10ean. 11:15ean luntxa egingo dute Txarriduna hotolean, eta handik Herriko Antzokira joango dira egun horretarako espreski prestatu duten dokumentala ikustera. Kalearen iragana eta oraina uztartzen dituen dokumentala prestatu dute, lehengo eta oraingo argazkiekin. Auzokide zaharrenak omentzeko ekitaldia ere egingo dute antzokian. Gero bazkaria egingo dute Sigman, musikarekin. Interesatuek urriaren 26rako eman beharko dute izena, 43 euro ordainduta, honako kontu zenbakian: ES98.3035.0007-23.0071136105 (Euskadiko Kutxa).

Emakumeek industrian jokatu duten papera azaleratu zuten asteburuan Makina Erremintaren Museoan

Elgoibarko Makina Erremintaren Museoak bat egin zuen Foru Aldundiak antolatutako Ondarearen Europako Jardunaldiekin, eta horren harira, ekitaldi berezia egin zuten joan den zapatuan, emakumeek industrian jokaturako papera azaleratzeko. *Estarta eta Ecenarro: Sigma josteko makinak, emakumeen lan munduratzeari* izeneko erakusketa antolatu zuten. Erakusketan hainbat josteko makina ipini zituzten, baita argazkiak eta panelak ere, enpresa honetan emakumeek izan zuten papera eta garrantzia azaleratzeko. Gaiaren inguruko hitzaldia ere eskaini zuten, eta museora batutakoek euren iritziak eman zituzten.



Aldi baterako sei lanpostu betetzeko deialdia egin du Elgoibarko Udalak

Lau hilabeterako sei lanpostu betetzeko deialdia egin du Elgoibarko Udalak, Lanbiderekin elkarlanean. Lau postu operario moduan aritzeko izango dira, eta lanaldi osoko jarduna izango dute. Arkitektu edo arkitektu tekniko titulazioa duen lagun batentzako eskaintza ere egin du. Kasu honetan %90ekoa izango da lanaldia. Azken lanpostua administrazio laguntzaile postua betetzeko izango da, %80ko lanaldian. Enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2018ko diru-laguntzen barruan 61.131,89 euro jaso ditu Udalak. Lanpostu horietarako izena emateko Lanbideren egoitzara joan behar da.

Artile tailerra egingo dute bihar, hil bukaerako ferian

Debemenek Udalarekin elkarlanean antolatuta, hileko azken zapatuko feria egingo dute bihar, eta berrikuntzen artean, umeentzako artile tailerra egingo dute, 12:00etan hasita. Lasturko Goikola baserriko Carmen Esnaolak eskainiko du tailerra, eta artilearen prozesu guztia irakatsiko die partaideei: nola kardatu, nola tindatu... Azkenik, etxera eramateko eskumuturrekoak egingo dituzte.

Burgosera bidaia antolatu du Jubilatuen Biltokiak

Jubilatuen Biltokiak antolatuta, Burgosera egingo dute bidaia azaroaren 21ean. Bazkideek 40 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 45 euro. Interesatuek datorren astelehenera eman dezakete izena, egoitzan bertan. Astelehen eta eguaztenetan irakitzeko dute bulegoa, 11:00etatik 12:00etara.

Tokiko merkataritza sustatu eta plastikoa gutxitzeko kanpaina abiatu du Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak *Elgoibar Bizi bizixa* kanpaina jarri du martxan, tokiko merkataritza sustatzeko eta plastikoen erabilera gutxitzeko. Erosketak garraiatzen laguntzea eta kontsumo modelo jasangarriagoa sustatzea dira kanpainaren helburuak, eta horiek lortzeko, hiru lan ildo zabaldu ditu Udalak. Batetik, zumezko otarrak banatuko dizkiete azoka plazan dauden hiru saltoki finkoetako batean 10 eurotik gorako erosketa egiten duten pertsoneri. Guztira 300 otarre banatuko dituzte. Horrez gain, oihalezko poltsak banatuko dituzte bizilagunen bat bizi den herriko etxebizitza guztietan, plastikoen erabilera murrizteko. Azkenik, merkatu plaza barruan erosketetarako zortzi orga jarri dituzte herritarren eskura, herriko edozein dendatan egiten diren erosketak garraiatzeko. Orgentzako aparkaleku modukoa izango da. Orgak erabiltzen dituztenek etxera eraman, eta egunean bertan edo bihar ramunean itzultzeko aukera izango dute. Elgoibarko Udalak



10.000 euro baino gehiago bideratu ditu guztira kanpaina honetara.

Mila lagun inguru batuko dira bihar kinto-ospakizunen egunean

Bihar izango da kinto-ospakizunen estreinako eguna, eta eguraldi iragarpenaren arabera eguraldiak gehiegi lagunduko ez badu ere, festa giroa ziurtatuta dago. Izan ere, antolatzaileek esandakoaren arabera, 23 taldek hartuko dute parte, eta guztira mila lagun inguru batuko dira. 13:00etan jarri dute hitzordua Kalegoen plazan, eta argazki erraldoia aterako dute bertan. Ondoren, kinto bakoitzeko taldea bere kontura ibiliko da. Adin bereko taldeak elkartuko dira bazkaritarako, bakoitza bere aldetik, baina denak elkartzeko gunea ere prestatuko dute Maalako parkean. Gaurtik hasita, Kalefood merkatua jarriko dute Maalan, eta horren barruan foodtruck furgonetak, artisauen postuak, zuzeneko musika eta umeentzako tailerrak egingo dituzte, besteak beste. Gaur hasiko da festa 18:00etan, eta domekara bitartean jatekoa banatuko duten lau furgoneta eta musika egongo dira Maalan. Horrez gain, zuzeneko kontzertuak ere antolatu dituzte. Gaur, 21:00etatik aurrera Insania Crew taldeak kontzertua eskainiko du, bihar 23:00etan Puro Relajo taldeak joko du Udalak antolatuta, eta segidan DJ saioa egongo da. Domekan Indian Feathers taldearen txanda izango da, 18:00etatik aurrera. Horrez gain, ArTalde artisauren taldeko kideek euren eskulanak jarriko dituzte ikusgai asteburuan zehar, 11:00etatik 19:30era, eta umeentzako tailerrak ere egingo dituzte eguerdi aldean.

80 urtetik gorakoentzako bazkarirako izen-ematea

Azaroko azken astean ospatuko dute aurten Jubilatuen Astea, eta beste hainbat ekitaldiren artean, 80 urtetik gorakoentzako bazkaria egingo dute azaroaren 29an. Bazkari horretan aurten urrezko ezteiak betetzen dituzten bikoteak ere omenduko dituzte. Bazkaria doan izango da, baina izena eman behar da. Interesatuek urriaren 29tik azaroaren 19ra arte izango dute izena emateko aukera. Egoitzako bulegoan astelehen eta eguaztenetan irekitzen dute, 11:00etatik 12:00etara.

Perretxiko erakusketa egingo dute domekan


Karakate mikologia elkarteak urteroko Perretxiko Jardunaldiak antolatu ditu, eta horren barruan perretxiko erakusketa egingo dute domeka goizean, Kultur Etxeko sotoan. Bihar perretxikoak sailkatuko dituzte Aranzadi Zientzia Elkartearen kideek, eta domekan jarriko dituzte ikusgai, 11:00etatik 14:00etara. Astelehenean, bestalde, Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleentzako saio didaktikoak eskainiko dituzte.



Marraztea pasio

Ume-umetatik izan du marrazteko afizioa Julen Zabaletak (Elgoibar, 1921), eta talentu handia erakutsi du beti. Afizioa ofizio ere egin zuen, eta erretiroa aspaldi hartu bazuen ere, jarraitzen du marrazten. Ez dago gelditzeko, gainera. "Gorputza berez da alferra, eta nik ahal den artean, segi! Satisfazio handia ematen dit marrazteak", dio. Marrazteak bizi du. 'Yulen' du izen artistikoa, eta atzo Gure Baloiak Saria jaso zuen Mallabian, gizarte balioen sustapenean egindako lanaren aitortzat. Berarekin bost dira sari hau jaso duten elgoibartarrak.

- AINARA ARGOITIA -



Sasoiko eta argi dago Julen Zabaleta, 97 urterekin. Egutero irteten da kalera, eta egutero heltzen dio pasio duenari. "Marraztu gabe ezin ninteke bizi", dio. Egutotan, baina, nahikoa lan du telefono-deiei erantzuten. "Zenbatek deitu ete didatel! Zenbat etorri ete zaizkit etxera!". Joaten zaizkion guztiei sarrerako horman zintzilik daukan koadroarekin aterarazten dizkie argazkiak. "Elgoibarko plaza handia da hori. Dagoen gauzarik handiena", dio bere marrazkiari begira. Makina bat aldiz marraztu du irudi bera, "ederragorik ez dagoelako". Baina ez da Zabaletaren etxean topa daitekeen obra bakarra. Egongelako mahai gainera aterata dauzka marrazkietako batzuk, bisitariei erakusteko, eta hantxe ditu azkena Errioxan ateratako argazkiak ere, 2011. urtean agerkari honek eskaini zion azal-orriaren ondoan. "Zain daude horiek". Arkatzarekin marraztutako bat hartu du eskuan, San Vicente de la Sonsierakoa. Detailerik ez du falta begiratu batean, baina bukatu gabe dagoela dio. "Atzo arratsaldean egindakoa da. Arratsalderako pulstua ere hobea izaten dut, eta normalean, arratsaldetan marrazten dut", bota du. Dena du erakusteko, baina egunak beharko genituzke bizitza osoan zehar pilatu duen material guztia ikusteko. "Sobre bat zabaldu, eta marrazki bat agertzen zait. Traste zaharren bat jaso, eta beste bat".

7.000 laminatoko bilduma du, karpeta saillkatuta, eta digitalizatuta gordetzen dizkio semeak. "Konstantzia izan da nire dohailetako bat. Egin eta egin, eta txarto irtenez gero, borratu eta hasi berriro! Emaitzari erreparatu behar zaio, hori egiten eman duzun denborari beharrean. Eta gogorik ez, hasi ere ez. Sendagileak ere beti esaten du gogoz kontra ez jateko". Karikaturak egiten hasi zen

umetan, Aita Agirre plazan futboleko egiteko batzen ziren lagunak erakusteko. "Traza zerean izaten zuten, baina, tira!". Gustatu, baina, elizak eta eraikin zaharrak marraztea gustatzen zaio. "Eraikin berriek ez dute merezi marrazterik. Horregatik dauzkat Eibarko gutxi [120 bat lamina ditu], Eibar erre egin zutelako eta gaurko Eibarrek ez duelako merezi". Gipuzkoako 88 herrietako ermita guztiak marraztu ditu, eta baita Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako gehientsuenak ere. Eraikin publiko, baserri, dorretxe, eta lantegiez gain, garai bateko ogibide eta tradizioak ere jaso ditu marrazkitan. Nabarmena da, era berean, 1965etik gaur arte liburu ilustratzaile gisa egin duen ibilbidea. Asko eta asko dira bere marrazkiak jaso dituzten argitalpenak, besteak beste, Zeruko Argia aldizkariak 1960-1969 urte bitartean argitaratu zuen *Pan-pin* komiki-aldizkaria, *Eibar, Tintaz eta lumaz* (2010), *Goierni Marrazkitan* (2013), *Amaia: VIII. Mendeko euskaldunen istorioak* (2006), *Elgoibar, iragana eta oraina* (2008), edota Carmelo Urdangarin ikerlariak (Gure Baloiak Saria 2013) argitaratutako *Oficios Tradicionales* bildumako liburuak.

Trenez eta autobusez ibili da hara-hona urteetan, gustuko zituen eraikinei argazkiak eginez. Carmelo Urdangarin lagunarekin ere makina bat atzera-aurrera egindakoa da autoz. "Hamar urtean soltatu barik ibili gara. Komunera eta ohera ez, baina osterantzean, batera joan gara gu leku guztietara, baina orain, ez nau ezagutzen. Sartu

zizaion gaitza eta burua lausotu zaió”, dio penatuta. Historia-liburuak eta turismo-bulegoetan bildutako mapa eta informazio-oriak izan ditu, baina, beti, lanerako abiapuntu. “Gustukuak markatu eta bila joan izan gara, kamera hartuta”.

Umetako afizioa, ofizio bihurtua

Ume-umetan hasi zen marrazten, aitak anaia eta biei oparitutako arkatzarekin. Lehenengo marrazkia ere gogoan du. “Aitzurra egiten hasi eta autoa irten zitzaidan”. Eskola handirik ez du izan, baina talentua, sobera. San Lorentzoko eskolan eskolatu zuten 6 urterekin, “San Lorentzoko unibertsitatean”, baina a,e,i,o,u ikasterako laga behar izan zuela gogoratu du. Helduagotan, delineaizaile hasi zen, marrazteko zuen afizioa tarteko. Makina-erremintaren arloko hainbat enpresatan lan egindakoa da, delineaizaile eta proiektugile gisa, makinen marrazkiak eta argibide-liburuetarako makinen funtzionamendua azaltzen zuten krokisak egiten. 15 urte zituela hasi zen lanean, Elgoibarko forjetan lehenengo eta ondoren Ciaran, Jarbe, Goiti eta Danobaten. “Sasoí batean, enpresa denetatik ibili zitzaizkidan deika”. Danobaten hartu zuen erretiroa 1986. urtean, baina erretiroa hartu ondorenean ere zortzi bat urtean jardun zuen Danobatentzako lanean. “Argibide liburuak egiten nituen Kanadara eta kanpora bidaltzeko. Bestela makinarekin batera langile bat bidali behar izaten zuten azalpenak ematera kanpora eta hori garestia zen orduan. Makinaren tripa guztiak marrazten nituen, perspektiban, gero besteek zelan lotu jakin zezaten”. Eta atera ditu Danobatentzako lumaz egindako dozenaka marrazki mahai gainera. “Marrazteko



afizioari esker, makina erremintari buruz ere asko ikasi dut. Eskolagabea naiz, baina historialari handiekin ibili naiz hara-hona eta asko ikasi dut, historiaz eta bizitzaz. Askok ez; dena ikasi dut”, dio.

Hori du bere beste ezaugarrietako bat. Eskola zapaldu zuen, baina ez nahi beste denboran. “12 urte nituela gerra hasi zen, eta akabo gure eskolak eta gure zerak!”. Autodidakta izan da. “Eginak erakusten du hemen. Eskolarik ez dut izan, baina konstantzia handia bai. Hilabetean marrazki egin gabe banago, torpetu egiten naiz. Neuk igartzen dut. Sekreturik ez daukat, baina egiten dudana badakit seguru egiten dudala. Hori bai, orain erregela erabili behar izaten dut marrazki zuzen egiteko. Lehen, ez nuen halakorik behar”, esan du. Nahi lukete askok bere argitasuna 97 urterekin. “Ez nago kexatzeko. Osasun ona daukat eta gustuko lana izan dut beti. Zer gehiago behar dugu ba! lagunak ere deitu eta deitu ari zaizkit zoriontzeko. Pozik nago”. [Atzo] Mallabiako sari-banaketa ekitaldian irakurtzekoa zuen mezua ere ekarri du eskuz idatzita. “Ez daukat gauza handirik esateko. Bi berbatan esan dezaket, eta ez naiz alferrik luzatuko. Eskerrak eman nahi dizkiet denei nirekin akordatzeagatik”.

♦ Nola jakin zenuen zeu izango zinela Gure Baloioak Saria jasoko zuena? Zer da zuretzat sari hau?

Julenek, semeak, deitu zidan egun batean biharamunean Azitainera joan behar genuela esanez. Eta han joan ginen Debe-gesara. Hantxe esan zidaten, baina geroago jabetu nintzen eman behar zidatenaz. Han, tontotuta moduan gelditu nintzen, eta etxerakoan semeak ohartarazi ninduen. Pozik nago, bai, oso pozik. Sari eta errekonozimendu asko jaso ditut, baina hau bestekorik ez. Nire aurretik jende handiak jaso du, tartean lau elgoibartarrek: Gemma Agirregomezkortak, Sabin Osorok, Jesus Bilbaok eta azkena Felix Etxeberriak. Eta orain neuk. Gauza handia da.

♦ **Etxean ba al duzu jarraituko dizunik?** Bi seme dauzkat, eta bietako batek, Iruñean bizi denak, bazuen umetan afizio apur bat, baina ez zuen aurrera egin. Birbiloba bat badaukat orain, 4 urtekoa, jator-askoa, eta haretzek dakar afizio pixkat. Mar-goak-eta eramaten dizkiet nik, segi dezan. Gustatuko litzaidake ba norbaitek afizio pixkat egitea, bihar edo etzi falta naizenean norbaiti laga ahal izateko hemen gordeta daukadan materiala. Biloba bati eman nizkion aurrekoan liburu batzuk-eta, baina badakizu zenbat dagoen hemen?

*“Gustatuko litzaidake
etxekoren batek afizio
pixkat egitea, bihar edo
etzi hau dena norbaiti
lagatzeko”*

♦ **Arantzarik edo damurik baduzu?** Egin gabeko denak dira arantza. Denak egin nahiko nituzke, baina ibili egin behar da. Semeari esaten diot hara-hona eramateko, baina ez dauka astirik. Afizioa bai, baina astirik ez. Eta eskapadak egiten ditut. Aurreko batean Bermeon izan nintzen. Trenez joan nintzen Le-moara eta handik Bermeora gero. Bi ermita neuzkan egin gabe, Santa Eufemia eta Andra Mari, eta haiei argazkiak egitea joan nintzen zapatu arratsaldean. Joan, argazkiak egin eta buelta etxera. Bat eginda neukan, baina oker, eta ezin zen hala laga. Semearekin joaten naizenean, jarraitu ezinda ibiltzen natzaio. Gertatzen zaidana da leku askotan urruti laga behar dela autoa, eta lekuraino bertaraino iristeko asko ibili behar dela.

Halakoetan semea bidaltzen dut argazki kamerarekin. Irlan-dara joan ginenean semeak 150 bat argazki atera zituen, eta ni ez nintzen ehunera iritsi.

♦ **Nori emango zenioke zuk sari hau?** Nik beste meritu egin duenik izango da inguruan. Pello Arrieta bera ere egokia izango litzateke. Lan handia egiten ari da, eta zoriontzeko deitu zidanearan berari ere esan nion ez nuela ulertzen nolatan ez zioten berari eman nire aurretik. Pello Arrietak eta Javier Elorzak biek merezi dute.

EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ
azaroaren 23tik abenduaren 3ra

Inazio Bereziartua Musika Eskola



Elgoibarko Sare



Taupada Antzerki Taldea



Udal Txistulari Taldea



Gotzon Garate Udal liburutegia



Kalamua Guraso Elkarte



60+



ArTalde Artisanen Elkarte



Eusko Alderdi Jeltzalea



Haizea Emakume Taldea



ILS Hizkuntza Eskola



Elgoibarko Herri Eskola



Elgoibar Ikastola




IMH



Elgoibarko Kontsumo Taldea



Lagun Taldea Txirindulari Elkarte



Udal Musika Banda



nek eman dute izena!

hamaikakoa



CD Elgoibar

16 urte badituzu eta euskara ulertu edota berba egiteko gai bazara,

Eman izena zeuk ere!

www.euskaraldia.eus
elgoibar@euskaraldia.eus - Euskaraldiaren lokalean

Sustrai Akordeoi Taldea




Uluka Batuka Taldea



EH Bildu



Elgoibarko Errigora



Txankakua Elgoibarko Merkatarik Elkartea



Elgoibar Institutua



DanobatGroup



Meka Lanbide Heziketa



Alkate eta zinegotziak



Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseilua



Elgoibarko Danborrada Atabal Elkartea



Elgoibarko Haurreskola



Sanlo Eskubaloit Taldea



Udal langileak



AEK euskaltegia



Zubi Ondo Elgoibar Xake Taldea



► GARIKOITZ URBIZU eta HARITZ GOIKOETXEA

TUTERA IKASTOLAKO
IRAKASLEAK

Aldaketaren legealdia deitu izan zaio Nafarroa bizitzen ari denari. Hizkuntza eskubideen urraketa sistematikoa izan da urteetan Nafarroan, baina Kontseiluak aukera ikusten du orain Euskararen Lege berria idazteko, eta bultzada emateko, Nafarroa osoan euskara ofiziala izan dadila eskatzeko, manifestazioa antolatu du Iruñean biharko (17:00etan). Mobilizazio horren harira, Garikoitz Urbizu eta Haritz Goikoetxea mendarorekin aritu gara berbetan. Erriberan bizi dira, eremu ez-euskaldunean, eta Argia ikastolan ari dira irakasle (Fontellasen). Urbizuk eta Goikoetxeak nabarmendu dute euskararen ofizialtasuna euskal herritar gutxiei eragiten dien gaia dela.

- AINARA ARGOTIA -

◆ Zergatik egon beharko genuke biharko manifestazioan?

Gari: Kultura eta hizkuntza eskubideak euskaldun orok izan beharko genituzkeelako berrmatuta, eta gaur, Nafarroako parte batean gaudenok ez dauzkaguelako. Leku gutxitan pasatuko da munduan hau. Baina ari bagara gure euskalduntasuna aldarrikatzen, ez ditzagula ahaztu hizkuntza eskubidea urratua duten herriki-deak. Denok egin behar dugu indarra, hemengo indarrarekin bakarrik nekez lortuko dugulako zerbait.

Haritz: Hizkuntza komunitate osoaren erantzukizuna da egoera hau zuzentzeko indarra egitea.

◆ **Argia ikastolak Erriberako herrietako ikasleak jasotzen ditu. Zer egoera bizi duzue? Zer da Argia ikastola Erriberan?**



Garikoitz Urbizu

Haritz Goikoetxea

“Sarri sentitu dut euskaraz ez dakitenak direla hemen, Erriberan, euskaldunenak”

- GARIKOITZ URBIZU -

G.U.: Argia ikastola Tuteran sortu bazen ere, gaur Fontellasen dago, Tuteratik lau kilometrora, eta eskualde osorako ikastola da. Alesbes, Cintruénigo, Corella, Castejon eta beste leku askotatik etorzen zaizkigu ikasleak, autobusez, eta esan gabe doa gurasoek ahalegin handia egin behar izaten dutela seme-alabak ikastolan eskolatzeko. Hemen, euskaraz ikasi nahi duenak ez dauka Argia beste aukerarik, eta hurrek kilometro ugari egin behar izaten dituzte joan-etorrian. Badira egunean orduerdiko bidea egiten duten umeak, eta hori biderkatuz gero urteko eskola-egun kopuruarekin, izugarritzko zenbakiak iritzen dira, bai kilometrotan eta baita eurotan ere. Tuteran bizi garen familiok diru-laguntza bat ematen dugu urrutia-gotik datozenei garraio-gastuak ordaintzen laguntzeko. Iaz, estreinakoz, diru-laguntzak jaso genituen garraiorako eta jantokirako, eta aurten ere iritsi dira. Horrek arnas pixkat ematen digu, baina errezik ez dago.

◆ Zein nekeza da Tuteran euskaldun izatea?

G.U.: Beti esaten dut itsuen herrian begi-bakarra izaten dela nagusi, eta hona etortzen den euskaldunari antzekoa gertatzen zaiola. Umetan noizbait soinua jo badu, hemen, soinua hartuta ibiliko da hara-hona. Denetarik egin behar izaten da. Ahalegin handia eskatzen du hemen euskaldun izateak, eta garestia da. Hemen errifak edo kamisetak ateratzen ditugunean, badakigu zeintzuek erosiko dizkiguten. Leku gehiagotan ere gertatuko da, baina hemengo euskaldun komunitatea txikia denez, gehiago ematea tokatzen zaigu.

H.G.: Nafarroa Oinez antolatzea egokitzen denean ere ez da gauza bera Iruñeko ikastola batek antolatzea edo Argiak antolatzea. Hemen ehun familia inguru gaude bakarrik eta dezentez ahalegin handiagoa egin behar dugu gauza bera antolatzeko.

◆ Zertan eragin dizue zonifikazioak?

G.U.: Duela bost-sei urtera arte, alegala

izan da gure ikastola, eta gauza txarren bat egiten ari bagina bezala ibili gara beti. Gobernuak onartzen zuen gure egoera, baina aurrera egiteko, trikimailu ugari egin behar izan ditugu. Duela 50 urte Gipuzkoa-Bizkaian klandestinatean zabaldu-tako ikastoletan bizi izan zituztenak bizi izan ditugu guk egunero oraintsu arte. Eta gu mendaroarrak izanda, pentsa zer iruditu zitzaigun hau, iritsi ginenean.

H.G.: Militante kontzientzia hori oso agerikoa da hemen. Gipuzkoa, Bizkai eta Araban euskaraz egitea oso erraza da, baina hemen ez. Behin egingo duzu, baina ez aurpegi txarririk ikusi gabe. Gogorra da. Euskalduntasuna ezkutatu egin behar duzu hemen.

♦ **'Hemen ere ez da ba beti kosta gabekoa!' pentsatuko du zure erantzuna irakurri duenak. Euskaraldia ariketak ere gutxiengo hori markatu digu: egin dezagun beti lehenengo hitza euskaraz.**

H.G.: Bai, baliteke, baina ni Donostiara noanean indartsu sentitzen naiz; legitimo, edozein lekutan sartu eta euskaraz egiteko. Hemen, babesa jantzita irteten naiz, eta onartzen dut askotan ez dudala behar besteko ahalegina egiten trantze horretatik ez pasatzearren.

♦ **2015eko otsailean, Nafarroako Parlamentuan Vasceence legea aldatu zutenetik, D eredia Nafarroa osoko eskola publikoetan aukeratu daiteke berez. Orduetik, ehunka familiak aukeratu dute euskarazko murgiltze eredia, debekatuta zegoen herri eta eskoletan. D eredia aukeratu dute erregimenak sustatutako euskarafobiaren gainetik.**

G.U.: Aipatzen dituzun familia horien kasua ez da Erriberakoa. Hemen, bat edo bi izan ziren. Gauza bat argitu nahi nuke, hala ere. Atzo bertan izan nintzen seme-alabentzat D eredia nahi duen Castejongo ama batekin eta berak esan zidan zortzi lagun bildu zain daudela gela bat osatzeko. Eta Castejon Tuteratik 40 bat kilometro dago eta lehenengo punturik indartsuena Tafallan dago, Tuteratik hiru ordu-laurdenera autoz. Argi laga behar da beraz lege honek bere alde positiboak eta negatiboak dauzkala. Positiboak da

nahi duen guztiari aukera zabalitzen diolako euskaraz ikasten hasteko, baina alde iluna ere badu, oso zaila jartzen diolako aurrera egiteko. Batetik, sortuko den gela hori gela bakarra izango delako ikastetxe eta gune erdaldun batean, ez garelako ari zortzi gela sortzeaz; ari gara esaten haur txikienekin gela bakarra osatzea ikastetxe erdaldun batean. Eta bestetik, zailtasun horri kontra egin eta aurrera egitea erabakiz gero, gerta dakizuke azkeneko momentuan gela hori ez osatzea eta aukerarik gabe gelditzea gero ikastetxea aukeratzeko. Eta jakina, guraso horrek nahi duena da lehenengo bere seme-alabak euskaraz ikastea, baina aukerarik ez baldin badu, gutxienez, etxetik gertuen daukan ikastetxean eskolatu ahal izatea umea.

"Hizkuntza komunitate osoaren erantzukizuna da egoera hau zuzentzeko indarra egitea"

- HARITZ GOIKOETXEA -

♦ **Zer dira guraso horiek zuentzat?**

G.U.: Miretsi egiten ditut. Ahalegin hori egiteko prest dauden gurasoak egon daitezkeela irudikatzea bera ere zaila da, oso txarto ikusia den komunitate bateko kide izango direlako. Erriberako familia asko Logroñotik-eta etorritakoak dira, eta hemen inguru dena da erdalduna. Iruñea daukagu iparraldera, baina hemendik ehun kilometro. Beraz, seme-alaba euskaraz eskolatzea erabakitzen duen gurasoak direnak eta bi entzun beharko ditu. Familiar bertan izango du zaila. Entzun beharko du pribilegiatu bat dela, bere seme-alabaren gelan zortzi ikaskide direlako eta gainerako geletan, 25 bat. Entzun beharko du ez dela bertakoa, Erriberan ez delako euren ustetan behin ere euskaraz egin. Ausardia handia behar du gurasoak. Begira, hemen urtebetetze-festa batera joaten garenean lehenengo *Cumpleaños feliz* abesten dugu beti, eta

gero, ausartzen bagara euskaraz abesteko eskatzen, kantatzen dugu euskaraz ere, baina segidan-segidan, *Happy birthday* dator. Hemen, edo gara edo ez gara hizkuntzen aldekoak. Ez dute sentitzen euskara euren hizkuntza denik; euskara atzerriko hizkuntza da hemen.

H.G.: Legea aldatzea behar-beharrezkoa da, euskarari prestigioa emateko eta euskaldunok ahaldunduta sentitzeko, baina horrekin batera behar dira beste neurri batzuk ere. Irakaskuntzan, aipatu dugun aukera hori zabaldu zen, baina sasoi berean, euskararen kontrako kanpaina gogorra ere egin zuten hemen matrikulazio aldiaren, buzoirik-buzoi, eta jakina, egoera horretan oso zaila da gurasoek libreki erabaki ahal izatea. Halakoei aurre egiteko neurriak behar dira.

♦ **Euskarafobia horren kontra zein botika erabiltzen duzue zuek?**

G.U.: Gure seme-alabak ikastolan dabil-tza, baina aisialdiako eskaintzan ere badabil-tza, gainerako hurrekin batera. Eta lagun horien gurasoetako batzuk guardia zibilak dira edo PPkoak. Jende horrekin gabiltza gu egunero, eta gurasoak elkar-tzen garenean, sarri irteten da gaia. Nik nafartasunari heltzen diot halakoetan. 'Sí, es que tus hijos son vascos' esaten didate, eta nik bai, jakina, eta zuenak logroñoar-rak erantzuten diet. Ez aizue, ni Gipuzkoan jaioa naiz, eta zu, Logroñon, baina gure seme-alabak nafarrak dira; zureak bezainbat dira nireak nafar, eta gainerako nafarrei aitortzen zaizkien eskubideak dagozkie. Eskubide horiek ez dituenak nahi, ez ditzala hartu. Eta beste hau ere esaten diet: gu beti izan garela nafarrak; izatekotan, beraiek direla kanpokoak.

♦ **Eta? Nola hartzen dute?**

G.U.: Ikusi nahi duenak, ez du inoren beharrik hori ikusteko. Hemengo dantza guttiak Nafarroa iparraldekoak dira. Argi dago, beraz, kulturalki zein sustraitik gaitozen. Gertatzen dena da azkeneko urteotan UPN eta abarrek ahaleginak eta bi egin dituztela hori ezkutarazteko. Zer eskainirik ez duenaren kontuak dira. Beldur-raren estrategia erabili dute beti.

H.G.: Euskarafobia egon badago, baina

nik esango nuke euskararen kontra dauden multzoa txikitu egin dela eta euskarak erikiko indiferente agertzen direnena handitu. Kontra daudenak badaude, jakina, baina ez dakit esaten duten beste diren ere.

♦ **Euskarak hor bizi duen egoeran, indiferente izatea ez al da kontra egitea?**

H.G.: Ez nuke esango hemen hala denik.

♦ **Nafarroak jarraitzen du hirutan zati-tuta egoten 1986ko Vasceucearen Foru Legearen ondorioz, baina legeak ñabardurak izan ditu, badirelako zonifikazioa amaitzeko eskatu eta inposatutako eremu ez-euskaldunetik askatzea lortu dutenak ere. Hobekuntzarik igarri duzue? Zertan?**

G.U.: Prestigioan irabazi dugu apurren bat. Lehengo aldebarreko begirada horren ostean beste keinu batzuk igartzten dira, baina egunerokoa ez dakit eragina zenbaterainokoa izan den. Guk, adibidez, alde ekonomikoan igarri dugu igarri dugun apurra. Diru-laguntza batzuk jaso ditugu, baina justukoak; matrikulazioetan, baina, ez dugu alderik igarri.

♦ **Urriari Euskara Batzordea sortu zuten Nafarroako Legebiltzarrean Bilduren ekimenez, eta Geroa Bai eta Ahal Duguren babesarekin. Egoera aldatzeko abagunea ikusi du Kontseiluak. Zuek ere bai?**

G.U.: Ez dakit ba. Nik uste derrigorra dela halako mobilizazio handiak egitea; derrigorra dela gaizki dauden gauzen kontra agertzea; indarra erakustea. Hori bai, iruditzen zait gizartean eragiteko denbora beharko dugula, aurreiritziak oso sus-traituta daudelako.

♦ **Lege berriak zer irizpide bete beharko lituzke ezinbestean?**

H.G.: Gutxiengutxienez administrazioarekin ditugun harremanak euskaraz egitea bermatu beharko lituke.

G.U.: Normalizazio egoera batera bideratu behar gaitu. Adibidez: laz, nahigabe edo oker baten ondorioz, kartelak elebitan jarri zituzten hemen, Justizia eraikinean. Kartelak kendu eta erdara hutsean inprimatutakoak ekarri zizkiguten gero. Niri iruditzen zait elebitan egoteak ez lu-

“Ez dugu inoren eskubideak murriztea eskatzen, murriztuak dituztenei dagozkienak aitortzea baizik”

- HARITZ GOIKOETXEA -

keela inor mindu beharko. Gertatzen dena da erdaldunek uste dutela hori eginda euren eskubideak eta euren seme-alabentzako aukerak murrizten ari zaizkiela. Beilatokian eta suhiltzaileen gunean bakarrik daude gaur kartelak elebitan, eta iruditzen zait hori gutxienez eskatu behar dugula Nafarroa osorako.

H.G.: Ezezagutza handia dago, eta ezezagutzak beldurra dakar. Ikusiarazi behar diegu ez dugula inoren eskubideak murriztea eskatzen, murriztuak dituztenei dagozkienak aitortzea baizik.

G.U.: Orain arte Euskadi Irratia oso leku gutxitan entzun ahal genuen; gure umeak euskal eremuan matrikulatu genituen, baina ezin zituzten marrazki bizidunak euskaraz ikusi. Eta badakigu hedabideak zelako tresna diren komunitate bat egituratzeko.

♦ **Euskararen erabileraren inguruko datuak hemen ere ez dira guk nahiko gennituzkeenak. Hor, Legea duzue kontra. Eta hemen? Zerk huts egiten du?**

G.U.: Ez dakit ba. Hizkuntza txikiak beti du zaila ondoan handiago bat edo bi dituenean, eta hori da euskarari gertatzen zaiona. Emakumeen kontuarekin gertatzen den kontu bera da. Diskriminazio positiborik egiten ezean, beti galduko du euskarak. Emakumeen, euskararen, edo talde gutxituen aldeko neurriak hartu behar dira hemen.

H.G.: Zuek ere buelta batzuk emango zenizkioten gai horri. Gauza bat esatearren, esango nizuke badaukagula euskarazko erreferentziak ikusgarri egiteko premia.

♦ **Zerk eraman zintuen horra? Zerk ematen dizu indarra zailtasunen gainetik euskararen alde lanean jarraitzeko?**

G.U.: Lanak ekarri ninduen hona, baina

zazpi bat urtean, ostiralero bueltatu nintzen etxera. Sekula ez nuen pentsatuko hemen familia osatuko nuenik ere. Hona etorri aurretik, duela 20 bat urte, Azpeitian ibili nintzen lanean. Han, hizkuntza eskubideak bermatuta zituzten. Etxeko hizkuntza euskara zuten ikasle gehienek eta euskaldun izateaz harro sentitzen ziren, gainera. Alde hori zainduta zuten, hezkuntza akademikoari dedikatzen nion jardunaren ia osoa. Orain ere nire egitekoetan dago hori, baina egia da hizkuntzari ere dedikatu behar diodala besteari bezainbat. Hona iritsi nintzenean, ez nuen kalean inor euskaraz entzuten, baina gaur, euskaraz egiten dut kalean ikasle izandakoekin eta tabernara noanean ere badakit norekin egin dezakedan euskaraz. Duela 30 urte bost ikasle zituen Argia ikastolak, baina denbora guzti honetan hemendik pasatu diren denak kontuan hartuta, eta horiei AEKn ikasi dutenak batuta, kalean euskara entzuteko moduan gaude. Eta harro gaude gure alea jarri izanaz Erribera euskalduntzeko. Hori da nire motorra.

♦ **Iritsiko zen horra ere Euskaraldia. Zer balorazio egiten duzu, Gari?**

G.U.: Helburu handia du Euskaraldiak, hizkuntza ohiturak aldatzea ez delako beti erraza. Guk, guraso euskaldunak genituenok ere, erdaraz egin dugu Mendaron, kuadrillako erdaldunak euskaraz erantzuten hasi zitzaizkigun arte. Eta gaur euskaraz egiten dugu. Ariketa polita iruditzen zait, emaitza eman dezakeena. Garbi izan behar dugu euskarak egiten gaituela euskaldun, nahiz eta nik askotan sentitu dudana euskaraz ez dakitenak direla hemen batzuetan euskaldunenak. Euskaraz ikas dezan egunero 18 hilabeteko umea autobusean uzten duenak eskolara orduerdiko bidea egin dezan, eta hileroko, bere ahalekin gainteko kuota ordaindu behar duenak gu bezainbat edo gehiago egiten du euskararen alde. Guk haiek egin duten ahalegina egin behar izan bagenu euskaraz ikasteko, ez dakit haiek bezain euskaldun izango ginatkeen, euskaraz jakinda ere.



*Ceferino
Gonzalez
Velasco*



*Mari Isabel
Iturbe
Cirelluelo*



*Jose Antonio
Iriondo
Sangroniz*

Gurekin zaudete, ibilaldietan, sentadilletan... eta hizketaldietan.



60+ taldea

I. URTEURRENA

Joxe Mari Irusta Larrañaga

1947/04/21 - 2017/10/27



*Sendian, beti maitagarria
ta goxoa izan zera,
lagun artean, umoretsua
oso argia, gainera.
Arrazoia ta grazia, berriz,
zendun hitzetik hitzera.
Gu agurtuta orain bazoaz
zu atsedena hartzera,
beti izar bat izandakoa
izarrekin elkartzera.*

Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan,
urriaren 27an, 19:00etan Elgoibarko
Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

I. URTEURRENA

Concha Azkue Villar

2017ko urriaren 31n hil zen, 96 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, azaroaren 3an,
19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



***Hegaldi, amets eta
bizipen bakoitzean
zure presentzia beti izango dugu
gure bihotzetan***





Badator Errigora, Nafarroa hegoaldeko ekoizleei eta euskalgintzari bidea errazteko egitasmoa

Azaroaren 14ra bitartean, bi otar jarriko dituzte salgai eta batzen duten diruaren %25 euskalgintzarako izango da

Azaroaren 14ra bitartean da Errigoraren kanpaina berria. Atzo aurkeztu zuten, eta azaroaren 14ra arte, Nafarroa hegoaldean ekoiztutako produktuekin osatutako bi otar jarriko dituzte eskura: zuria eta beltza. Aurten, 23 etxek eskaintako produktuak eskainiko dituzte, eta otar bakoitza 50 euroan salduko dute. Eta aurreko edizioetan egin izan duten moduan, batzen duten diruaren %25 Nafarroa hegoaldeko euskalgintzarentzat izango da. Eskerak bi modutara egin ahal izango dira: Tokian tokian banatuko dituzten eskuorriak betez edo, Internetez, Errigoraren webgunean sartuta (errigora.eus). Errigoratik jakinarazi dutenez, kanpaina 200 bat herritan egingo da, eta 700 puntu inguru egongo dira eskera egin eta kuxak jaso ahal izateko.



Errigora, euskalgintzarentzako arnasa

Bost urte bete dira Errigora sortu zutenetik. 2012ko udazkenean, 34.000 euro lortu zituen Zazpiak Bat Harreman Sareak, Nafarroa hegoaldeko bi ekoizleren produktuak salduta, eta haren jarraipena da Errigora ekimena. 2013ko urrian aurkeztu eta abiatu zuten, AEK, Ikastolen Elkarte eta Sortzenekin batera. *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* leloa erabili zuten kanpaina hartan, eta 8.000 otar baino gehiago banatu eta 112.000 euro batu zituzten Nafarroa hegoaldeko euskalgintzarentzat. Urte berriarekin, kontsumo-ohituretan eragiteko planteamendua egin zuten, udazkeneko kanpainaren emaitza onak hauspotuta, eta hemen bertako produktuei lekua egiteko bidea eskaintzeko asmoarekin, *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina proposatu zuten. 30.000 litro olio eta 50.000 kontserba ontzi saldu zituzten kanpaina hartan. Ordutik, beste lau urtean egin dute kanpaina eta egitasmoaren inguruan osatu den komunitatea nabarmen hazi da. Gero eta kontsumitzaile eta ekoizle gehiago batu dira komunitate horretara, eta boluntario-sarea ere handitu da. Bost urte hauetan 800.000 euroko ekarpena egin dio Errigorak Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari, eta ahalegin handia egin du nekazariak, ekoizleak eta bezeroen arteko harremanak indartzen. Atzo, aurtengo kanpaina aurkeztearekin batera,

urteotan euskalgintzari emandako dirua zertan erabili den azaldu zuten. Hizkuntza eskubideei dagokienez administrazioak gutxiespen tratua eman dio Nafarroa hegoaldeari eta Errigorak batutako diruak euskalgintzaren dinamikei bizirik eusteko balio izan du. Baina gehiagorako ere eman du. Erriberako AEKn, adibidez, ikasleei matrikula arintzeko beka-sistema jarri dute martxan diru-ekarpenaren parte handi batekin, eta sistemak eman du fruitua: 2013-14 ikasturtetik 16-17kora %70 hazi da matrikulazioa Goi eta Behe Erriberan. Ikastolak ere ezinbesteko tresna dira herritarrak euskalduntzeko, eta Vianako Erentzun, Lodosako Ibaialde eta Tuterako Argia ikastolei ere ekarpen polita egin die Errigorak. Arnasa lasaiago hartu ahal izateko balio izan dire orain arte bildutakoak eta baita beharrezko konponketak egin eta azpiegiturak atondu eta ezinbesteko materiala eskuratzeko ere.

Sortzenek, berriz, euskaraz bizi eta ikasteko eskubidearen aldeko dinamikak hauspotzeko erabili du urteotako diru-ekarpena. Lehenengo fase batean, Euskaraz Bizi eta Ikasi herri-ekimenak sortu eta hauspotzeko erabili zuten dirua, eta bigarren fase batean, 2015etik aurrera, D ereduaren aldeko kanpaina zuzenak egiteko. Eta saiakera horri esker, D ereduko taldeak sortu dira Tafallan, Lodosan, Kaparrosan, Allon, Antzinen, Erriberin, Sesman, Azkoienan eta Barasoainen.

“Bizi garen gatazka egoeran gustatzen zait jendearen bihotzean eragitea”

▶ JAIRO BERBEL ARGAZKILARIA

Jairo Berbel kazetari eta argazkilaria elgoibartarrak izaera solidarioko bi dokumental aurkeztu zituen joan den asteburuan Eibarko Coliseo Antzokian: ‘Raid Pandemonium’ eta ‘Grande Cuore, Ibai.’ Batak, Marokoko desertuan eginiko auto lasterketa solidarioa erakusten du, eta bestea, gaixotasun arraro bat duen Ibai eibartarraren egunerokoa. 300 bat lagun batu ziren Coliseoan, eta jasotako dirua gaixotasun arraroen aldeko elkarteari emango diete.

- AINHOA ANDONEGI -



♦ Zer moduzkoa izan da zure azken bi dokumentalen aurkezpena?

Oso ona! 300 bat lagun batu ziren Coliseo Antzokian, eta ikusleak oso pozik irten ziren. Askok ez zekiten zer ikusiko zuten, eta harrিতa geratu ziren. Ni oso gustura geratu naiz.

♦ Izaera solidarioa duten bi lan, baina oso desberdinak biak.

Bai, *Raid Pandemonium*arekin hasi zen hau guztia. Marokon egiten den auto lasterketa solidarioa da. 60 zaldi baino gutxiago eta 25 urte baino gehiago dituzten autoek hartzen dute parte, eta auto horiek bertako umeentzako opariz beteta joaten dira. Etapa bakoitza non hasi eta non bukatzen den esaten diete auto gidariari, eta norberak aukeratzen du ibilbidea. Bukaeran kilometro gutxien egiten duenak irabazten du, eta ez helmugara lehenengo iristen denak. Oso polita da. Partaideetako bikote bat eibartarra da, eta haiek deitu zidaten dokumental bat egiteko. Berehala esan nien baietz. Gu 4x4 auto berri eta eroso batean joan ginen, eta hala ere arazoak izan genituen basamortuan. Atera kontuak partaideak nola

ibili ziren! Lasterketako politena dudarik gabe hango bizilagunek eginiko harrera izan zen. Partaideek badakite raid horrekin ez dituztela hango arazoak konponduko, baina egun batez hango umeak zoriontsu egitea lortzen dute, eta horrek asko balio du.

♦ Saharako basamortutik bueltan, gaixotasun arraro bat duen mutiko baten etxean sartu zinen.

Bai, hala da. Raidean parte hartu zuten eibartar horietako batek Esti ezagutzen zuen, Ibairen ama, eta esan zidan ea nahiko nukeen mutikoaren eguneroko bizimoduari buruzko dokumental bat egin. Ni oso sentibera naiz, eta ez nuen asko behar izan baietz esateko. Allan Herndon Dudley izeneko gaixotasuna dauka Ibaik, eta ondorioz, ezin du hitz egin, ezta ibili ere, eta mugitzeko zailtasun handiak ditu. Munduan 130 bat kasu besterik ez dira ezagutzen, eta gaixotasunari buruzko oso informazio gutxi dago. Larunbatean bildu genuen dirua gaixotasun arraroen aldeko AFESD elkarteari emango diogu. Ez da asko, baina ezer baino gehiago bada.

♦ Oso sentibera zarela aipatu duzu. Nola prestatzen duzu zure burua horrelako lanak egiteko?

Ez da erraza, eta momentu askotan iriteten zaizkit malkoak, ez pentsa. Ez dut penaz negar egiten; baina familia horrek egoera horretan erakusten duen adoneak hunkitu egiten nau. Horrelako lanetan nire helburua mezu positibo bat zabaltzea izaten da. Horikerian erori gabe, lan hunkigarria eta ikuspegi positiboa duena egiten ahalegindu naiz oraingoan ere, eta lortu dudala uste dut. Aspektu horretan zorionak eman dizkidate, Ibairen bizimodua sensibilitate handiz landu dudalako.

♦ Kongon ibili zinen umeen irribarreak erretratatzeko, Ekuadorren minbiziz hil zen bikotekidearen bizimodua jasozuen liburu batean, orain Ibairen egunerokoa jasoz duzu...

Bai, gustatzen zaizkit gai mamitsuak. Gaur egungo bizitzan gorroto eta gatazka egoera asko ikusten ditut egunero, eta bizi garen gatazka egoera honetan gustatzen zait jendearen bihotzean eragitea, jendea konturatzeko beraiek ere badituztela sentimenduak.

Elgoibarko artisauen azoka egingo dute asteburuan Maalako parkean



Urriak 27, zapatua

- Bihotza
- Edurne Askasibar
- Emi Nogales
- Ana Mosacula
- Bitxi Bitxi
- Xarlem Creations
- Enara Gorostiza
- Bizi Bitxi Bizi
- Azpi's bag
- Magi Bitxiak
- Zu + Ni
- Nieves Maidagan

Urriak 28, domeka

- Ana Mosacula
- Edurne Askasibar
- Amalur
- Azpi's bag

lazko azokan ateratako erretratua.

Azken urteotako ohiturari jarraituz, urriko azken zapatuan kalera irtengo dira Elgoibarko artisauak, euren lanak erakustera. Artalde Artisan Taldeko kideek eskuz eginiko hainbat eta hainbat produktu eskainiko dituzte, eta produktu horiek nola egiten dituzten ikusteko aukera ere izango da. Artalde taldea aurten egituratu dute elkarte moduan. Hogei bat artisauk osatzen dute taldea, eta denetariko eskulanak egiten dituzte: bitxiak, egurrezko lanak, xaboi naturalak, oihal gaineko margolanak...

Bi eguneko azoka

Urriko azken zapatuan egiten hasi ziren Elgoibarko artisauen azoka 2014an, eta aurten ere halaxe egingo dute. Orain arte egun bakarrekoa izaten zen azoka, baina aurten, kintoen egun bereziarekin bat egin du, eta hori baliatuta, Udalak aukera eman die artisauari azoka bi egunez jartzeko. Amaia Erkizia Artalde Taldeko lehendakariarek esan du taldeko kide batzuei gehiegizkoa iruditu zaiela bi eguneko azoka antolatzea, eta horregatik, artisau gehienak zapatuan bakarrik egingo direla adierazi du. Azoka egun osoa izango da bai zapatuan eta baita domekan ere, 11:00etatik 19:30era.

Azoka, plazarik onena

Aurretik Trinitate Jaietako azokan hartzen zuten parte, baina norberak bere kontura, eta askotan, ez zen denentzako lekurik izaten. Horri irtenbidea eman eta Elgoibarko artisau lanak plazara ateratzeko helburuarekin sortu zuen Elgoibarko Udalak azoka berezi hau. Amaia Erkiziak esan du eskertzekoa dela Udalak ematen dien aukera, izan ere, artisauak egiten dituzten lan guztiak erakusteko aukera bikaina zaie azoka: "Artisau lan batzuk dendetan jarri daitezke salgai, baina azokak egiten ditugun lan guztiak erakusteko aukera ematen du". Gaur egun sare sozialen bidez saltzen dituzte gehienek euren produktuak. Erkiziak berak asko saltzen du Facebook edo Instagram bidez, eta badaki taldeko beste hainbat kidek ere erabiltzen dituztela sare sozialak: "Lan egin behar da saltzeko, eta sare sozialek aukera ona eskaintzen dute, baina horrekin bakarrik ez da nahikoa. Azokak produktua ikusi, ukitu eta probatzeko aukera ematen dio bezeroari, eta hori ezinbestekoa da". Urtean bi aldiz irteten dira kalera Elgoibarko artisauak, urriko azken zapatuan eta Gabon Zahar Feria egunean.

Elgoibarko Udalaren 2019ko egutegiko irabazleak aukeratu dituzte

Elgoibarko Udalaren 2019ko egutegia osatzeko lehiaketan 31 herritarrek hartu dute parte eta, guztira, 135 argazki aurkeztu dituzte. Aurten goaia Elgoibarko koloreak izan da. Udaleko, Ongarri elkarteko eta Txankakuako ordezkariak osatu dute




Arg.: Vicente Guinea

epaimahaia, eta hamabi argazki aukeratu dituzte egutegi handirako eta beste bat eskuko egutegi txikirako. Argazki bakoitzaren egileak 70 euroko bonua jasoko du Txankakua merkataria elkarteko dendetan gastatzeko. Ondorengoak izan dira irabazleak: Gurutze Ariznabarreta, Vicente Guinea (3 argazki), Izaskun Estibaritz, Manuel Sanchez, Ana Loyola (2 argazki), Jose Ramon Cabrera, Maria Exposito, Mikel Askasibar, Regina Usasti, Denis Saiz. Elgoibar Ikastola eta Herri Eskolarekin elkarlanean, bestalde, marrazki lehiaketa egiten dute. LH5eko 109 ikaslek hartu dute parte, eta hauek saritu dituzte: Naroa Ansola, Salsabil Salhi, Uxue Altzerreka, Sara Mousaif, Aitana Gonzalez, David Cornel, Luken Viñaras, Nora Beitia, June Rodriguez, Naroa Muguruza, Laia Lopez, Unax Tapia.

Islandian ateratako argazkiak erakutsiko ditu Alex Berasategi argazkilariak Kultur Etxean



Ongarri eta Udalak antolatuta, Islandiara egin zuen bidaian ateratako argazkiak erakutsiko ditu Alex Berasategi, Elgoibarren bizi den argazkilari azpeitiarrak. Zazpi eguneko bidaia egin zuen Reikiavik hiriburuan hasita, eta hango paisaia "magikoak" jarriko ditu ikusgai Kultur Etxean, gaurtik azaroaren 10era bitartean. Erakusketara gerturatzen diren guztien artean argazki bat zozkatuko dute. Alex Berasategi duela lau urte hasi zen argazkiak ateratzen, eta orain dela bi urte zabaldu zuen estudioa Elgoibarren.



Kartela: Dani Zelaia

'Logikomitoak', gaur, 22:00etan, Bolatokian

40. urteurreneko ekintzen barruan *Logikomitoak* antzezlanaren taularatuko du gaur Taupada taldeak. Bolatokiko parkean izango da, 22:00etan hasita. Antzezlan honetan Euskal Mitologiako pertsonaietan oinarritu dira, errealitatea eta fantasia uztartuz. Guztira 32 pertsonak hartuko dute parte antzezlanearan: 14 izango dira taldeko aktoreak, eta gainerakoak estrak, bestak beste, umeak, gurasoak, Haritz dantza taldekoak, musikariak...

Martxan da euskararen aldeko esaldi lehiaketa

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, euskararen aldeko esaldi lehiaketa antolatu dute Elgoibarko Izarrak eta Gaztelekuak, Udalarekin lankidetzan. DBHko eta Batxilergoko ikasleek hartu dezakete parte. Euskarari lotutako esaldi originala sortu beharko dute partaideek, baina ezingo dute esaldi horretan euskara hitza erabili. Irabazleak ehun euroko txartela jasoko du, herriko dendetan gastatzeko. Lehiaketa irabazten duen esaldiarekin kamiseta bat prestatuko dute, eta 13-18 urte bitarteko nerabeen artean banatuko dute, doan. Urriaren 26a da parte hartzeko azken eguna. Whatsapp bidez: 628 170 330; Instagram bidez: @elgoibarkogaztelekua edo e-postaz: gaztelekua@elgoibar.org



Eskuak bete lan ekin dio Morkaiko mendi taldeak udazkenari

Perretxikoak, saguzarrak, mendi irteerak eta emanaldiak. Denek dute kabida Morkaiko mendi taldearen udazkeneko egitarauan. Aurreko barixakuan saguzarren mundua gertutik ezagutzeko irteera egin zuten, natura eta ondarea ezagutzeko irteera zikloaren barruan. Saguzarretan aditua den Antton Alberdi biologo elgoibartarrak gidatu zuen irteera. Parte hartu zuten 27 lagunak Sallobenten barrena ibili ziren saguzar bila. Ikusi baino entzun egin zituzten gehiago, ultra soinuak entzuteko tresna berezi bati esker. Irteera interesgarria bezain dibertigarria izan zela azaldu dute Morkaikitik. Hurrengo irteera Morura izango da, azaroaren 10ean. Joan den domekan, berriz, perretxikoak ezagutzeko irteera mikologikoa egin zuten Karakate Mikologi Elkartearekin elkarlanean. 35 umek eta beste horrenbeste helduk hartu zuten parte. Karakate magaleko basoetan aritu ziren perretxiko bila, eta batutako aleei buruzko azalpenak eman zizkien Karakateko kide Ignacio Muguerzak. 2018ko Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloa ere abian da. Ainhoa Lendinezek eta Igone Camposek eskaini zuten estreinako emanaldia, atzo. *Pyrenees Stage Run: Gure mendi bidaia* izeneko saioa eman zuten elgoibartarrak eta urretxuarrak. Azaroaren 8an izango da bigarren emanaldia. Joseba Elustondo eta Jon Garate eskalatzaile elgoibartarrek Patagoniako granitozko mendi gorenetara egindako bidaia kontatuko dute, eta *Kotoizko Zaindariak* izeneko filma estreinatuko dute Herriko Antzokian (21:30).



Imanol Garaizabalen taldeak irabazi du Basque Expedition Race lasterketa

Basque Expedition Race raidaren bigarren edizioa irabazi du Euskalraid-Aralar Kirolak taldeak, duela bi urte jokaturako lehen edizioan lortutako bigarren postua onduz. Lau kidek osatu dute taldea, tartean Imanol Garaizabal elgoibartarrak. Uxue Fraile (Donostia), Gaizka Agirre (Artea) eta David Tarres kataluniarra izan ditu taldekide. Euskal Herrian jokatu den proba gogor eta luzeenetarikoa da urriaren 11tik 15era bitartean Arabako Villanañe herrian hasi eta Espejon amaitu zen orientazio raida. Europa osotik joandako 40 taldek hartu zuten parte. Garaizabalek azaldu duenez, Danimarkako Yeti taldearekin borroka "latza" izan zuten. "Yeti taldekoen atzetik egin genuen lasterketa ia guztia, trantsizio guzietan egiten genuen topo, eta bagenekien gure arteko aldea ez zela hogeit hamar minutu baino handiagoa. Azken sekzioa trekking luze bat zen, orientatzeko oso zaila, behelainoagatik eta euripean egin genuelako inguru kars-



tiko batean, Arkamo mendikatean. Oso bizkor egin genuen eta aurrea hartu genien. 53 orduan amaitu genuen proba eta danimarkarrei ordubeteko aldea atera genien". Garaipen honi esker, Paraguain jokaturako den Expedicion Guarani raida jokatzeke txartela eskuratu du Basque Expedition Race taldeak.

Maite Maiora eta Javi Dominguez gailendu dira Hiru Haundiak mendi-lasterketan

Maite Maiorak kirol garaipen curriculumean falta zuten proba eskuratu zuten Hiru Haundiak mendi-lasterketa entzutsua irabazita, bere estreinako parte hartzean. Gainera, Mayi Mujika elgoibartarrak egin zuten hirugarren. Gizonezkoetan garaipen garbia lortu zuten Javi Dominguezek, proba honetan lortzen duen bigarrenkoa Elgoibarren lan egiten duen gasteiztarrantzat. Maiorak 12 ordu, 48 minutu eta 37 segunduan osatu zituen ibilbideko 101,6 kilometroak. Silvia Triguerosak 2014an ezarri zuten errekorretik (12:48:22) 15 segundora bakarrik gelditu zen. Oihana Azkorbebeitia abadiñarrak egin zuten bigarren, irabazlearengandik 13 minutura, eta bigarren postua eskuratzetik gertu gelditu zen Mayi Mujika, bi minutuko alde bakarrik atera baitzion kilometro askoan lehen postuan joan zen Azkorbebeitiak. Guztira 1.700 lagunek hartu zuten parte Gorbeia, Anboto eta Aizkorri batzen dituen proban.



Barachi Trofeoak baditu lehen irabazleak

Bizikletaz elkarrekin irteten diren edo afizioaren ondorioz lagunak diren Elgoibarko Txirindulariak taldeko kideek Barachi Trofeoa antolatu zuten joan den urriaren 20an. Erlojupeko proba egin zuten binaka, 24 kilometroko ibilbidean -Elgoibartik Debara eta buelta Elgoibarrera-. Hamabost lagunek hartu zuten parte eta zozketa eginez osatu zituzten zazpi bikote. Batek bakarrik egin zuten. Ramonek eta Igorrek osatutako bikoteak irabazi zuten proba, 38 minutu eta 12 segundoko denbora eginda. Jon eta Alberto sailkatu ziren bigarren (39:12). Partaideak gustura gelditu ziren lehen esperientzia honen eta datozen urteetan segida izago duela diote.

Leire Egaña eta Mauro Gonzalez txapeldun eta Arkaitz Egaña txapeldunorde Euskadiko Ehiza Xehe Txapelketan

Ehiza Xeheko Euskadiko Txapelketa jokatatu zuten urriaren 21ean Zambranen (Araba), eta Debabarreneko ehiztariak nabarmendu ziren, beste behin ere. Gipuzkoako txapelketako emaitzak errepikatzeko gutxi falta izan zen. Senior gizonezkoen kategorian lehen hirurek lehia estua izan zuten eta pieza kopuru berdina aurkeztu zuten ehizaldiaren amaieran: sei eper eta faisai bat. Hala, berdinketa hausteko, azken pieza beranduen hil zuten ehiztaria zein zen ikusi zuten epaileek, eta Eugenio Solagaiztua bizkaitarrak lortu zuten lehen postua. Elgoibarko, Debabarreneko eta Gipuzkoako txapelketak irabaztetik zetorren Arkaitz Egaña sailkatu zen bigarren postuan, eta Asier San Vicente, hirugarren postuan. Emakumezkoetan bikain aritu zen Leire Egaña, eta lau eper eta faisai bat ehizatuta irabazi zuten proba, nagusitasunez. Beteranoen artean Gipuzkoako txapeldun Mauro Gonzalez mendarorak irabazi zuten Euskadiko titulua. Hiru eper eta hiru faisai ehizatu zituen.



Unai Loiola hirugarren Iruzubietako tiraldian

Ziortza-Bolibarko Iruzubieta auzoko botatokia hasi zen Euskal Herriko 29. hiru txirlo txapelketa, urriaren 20an. Markina Xemeingo 3 Txirlo taldeko Olatz Jimenezek irabazi zuten tiraldia. San Migel taldeko Unai Loiola elgoibartarrak hirugarren postua lortu zuten, eta seigarren egin zuten Anjel Ibarluzeak (irudian).



LANA.....

Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 631 115 608

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia. Euskalduna naiz eta titulua daukat. ☎ 626 490 986

Neska gazte euskalduna umeak zaintzeko prest. Goizez. ☎ 652 718 719

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile lanetarako ere prest nago. ☎ 643 158 669

Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko pertsona euskalduna behar da. ☎ 615 006 733

Mekanika/elektromekanikarako langilea behar dugu, berehala hasteko. Bost urte baino gehiagoko esperientzia beharrezkoa. Esarriauto@gmail.com ☎ 943 741 480

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 612 293 334

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 616 421 970

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten ariko nintzateke. Orduka. ☎ 631 212 497

lan egiteko prest. Okin lanetan esperientzia handia. ☎ 631 477 997

Adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan eta orduka jarduteko gertu. ☎ 612 476 921

Etxebizitza, lokal edo komertzioak garbitzen edo adinekoak eta umeak zaintzen lan egiteko prest. Asteburuetan edo orduka jarduteko gertu. ☎ 631 532 426

Umeak edo adinekoak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. Astebukaeretan ere prestutasun osoa. ☎ 688 738 823

Adinekoak zaintzeko prest egongo nintzateke. Esperientzia handia daukat barrietan eta obretan lan egiten. ☎ 674 579 736

Adinekoak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 632 088 084

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka edo baita etxeko langile moduan ere. ☎ 605 196 917

Adinekoak zainduz eta garbiketa lanetan ariko prest. ☎ 643 464 072

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten ariko nintzateke. Etxeko langile moduan nahiz orduka (gauetan ere bai). ☎ 631 891 709

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan etxeko langile moduan. Berehala hasteko prest. ☎ 638 200 936

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 222 362

Adinekoak zainduko nituzke etxeko langile moduan. ☎ 632 971 173

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan asteburuetan. ☎ 632 424 157

Adinekoak edo umeak zaintzen nahiz garbiketa lanak egiten ariko nintzateke. Esperientzia eta erreferentzia onak ditut. ☎ 688 712 075

Eskaerak

San Lazaro egoitzan sukaldari bila gaitza ordezkapenak egiteko. Curriculum-ak, egoitzako harreraren utzi edo dir.elgoibar@biharko.org helbidera bidal daitezke.

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza alokagari daukat Urazandin. Hiru logela, bi komun eta egongela. Dena kanpora begira. Gas naturala du. ☎ 630 653 772

ESKOLA PARTIKULARRAK.....

Matematika (LH, DBH eta Batxilergoa), kontabilitate, ekonomia... gaietako eskola partikularrak ematen ditut. ☎ 666 042 710

KINTO OSPAKIZUNAK.....

1951n jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute azaroaren 10ean. 13:00etan Kalegoen plazan elkartu eta bazkaria Karakate jatekxan izango da gero. Izena eman nahi duenak 40 euro sartu beharko ditu azaroaren 8a baino lehen Laboral kutxako zenbaki honetan: ES75 3035 0007 2100 71136035. Transferentzia bidez edo lehiatilan egunero 10:30ak baino lehen.


BESTELAKOAK.....

Ume bizikleta urdin bat aurkitu dut Urazandin, belarretan botata. ☎ 943 741 042

Urriaren 19an balore sentimental handiko hiru ezkontz-eratzun galdu nituen. Uztai txiki batez elkartuta zeuden hirurak. ☎ 609 965 395

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak salteza: 18€ . Bestelakoak: 10€ . Iragarkiarri erretratua jarri gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak salteza: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarri gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.




Consejo Estatal de Colegios de Administradores de Empresas
Euzko Elkartea Administrazioaren Nazionalitatearen

Urbanizazio batean bizi naiz, beherengo solairuan, lorategia duen etxe batean, eta orain, egurrezko egitura bat jarri dut lorategian, estalki bat jarri ahal izateko. Azkeneko batzarrean, egitura jakin bat jartzea derrigortzeaz hitz egin zen, eta jakina, han adostu zen egitura ez da nik jarri dudana. Metalezko egiturak jartzea erabaki du komunitateak eta nik egurrezkoa jarri dut. Jakin nahiko nuke ea jarritakoa kentzera behartu nazaketen.

Normala da batzarretan kanpo itxurarekin lotura duten egiturak zelakoak izan behar diren zehaztea, eraikinari berari eragiten diotelako. Akordio horrek egokiak dira, beti ere legeak ezarritako prozedura betez egin badira, eta beraz, derrigor bete beharrekoak dira. Bete ezean, komunitateak epaitegira jo dezake akordio hori beteazteko eskatzeko eta aukera izango du egitura kentzera derrigortzeko, jarritakoa ez badator bat batzarrean adostutakoarekin.


AHOLKUA: Eraikinaren kanpo itxurari edo elementu komuneri eragiten dien zerbait jarri aurretik komeni da komunitatearekin adostea, komunitateak jarraitu beharreko protokoloa martxan jarri ahal izateko, gerta daitekeelako gerora beste etxejabe batzuek ere nahi izatea azpiegitura horiek egokitzea.



ROSA Mª PINTADO


Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Elica**, atzo 7 urte egin zenituelako. Mila muxu, neska handi! Ilargiraino maite zaitugu!



Zorionak, **Izari**! Oso ondo pasatu genuen urtebetetze ospakizunear.



Zorionak, **Gorka**, zure zazpigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familia-koen, eta bereziki, Maiaren partez.



Zorionak, **Jone!** Patxo bat familiako guztien partez.



Zorionak, **Asier!** Astelehenean urte-txo bat! Maitasun handiz, aitatxo eta amatxoren partez.



Zorionak, **Ibon!** Domekan 7 urte! Muxu handi bat etxekoan partez.

Erretratu bakarrek agurra: 4'50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3'50€.
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

LAGUNAK
colchoneria textil hogar

SAN ROKE KALEA, 20 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com

943 744 457

GOLIATH COMPLET LASTAIRA

- Haurraren lehen hilabeteetan, gorputza buruz behera geratzea saihesten du.
- Kotoi organikoz babestutako zorroa, transpirablea eta iragazgaitza.
- Elementuak umearen beharren arabera jarri edo kendu ditzakezu.



Lastaira, 15" dituen kotoi anatomikoa eta zifindro es-labaingarriak.



BARREN

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

Jon Aranoa
Guillermo Torres
Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Asteleheneatik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inoparimologi zerbitzua daukagu.
Dena ordua hartzeko.



IKASBAI
akademia

667 261 248
(Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
akademiaelgoibar@gmail.com


- LH
- DBH
- GAI GUZTIAK
- TALDE TXIKIAK
- EUSKARA ERREFORTZUA

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359

www.uzurioptika.com

AUDIFONO DIGITAL BERRIENAK



Ez da soinu kalitatea bakarrik;
bizi-kalitatea ere bada



26 BARIKAKUA

18:30 Argazki erakusketa: *Islandia*. Alex Berasategi argazkilariaren lana egongo da ikusgai, azaroaren 10era arte, Kultur Etxean. Antolatzailea: Ongarri Argazki Taldea.

20:30 Aurrez grabatutako opera emaldia: *Madame Butterfly*.

20:30 Aurrez grabatutako opera emaldia: *Madame Butterfly*.

21:30 Zine forum: *Las vidas de Grace*. Haizeak antolatuta, Loredi Salegirekin, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:00 Antzerkia: *Logikomitoak*. Taupada Antzerki Taldearen 40. urteurreneko ekitaldien barruan. Bolatokiko parkean.

27 ZAPATUA

Hil bukaerako nekazaritza eta abeltzaintza feria.

9:00 Baserrietako produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

12:00 Haurrentzako tailerrak.

Eguerditik aurrera, ganadu erakusketa Aita Agirre plazan.

Kale Kantariak feria giroa alaituko dute.

11:00-19:00 Elgoibarko Artisauen Azoka, Maalako parkean. Antolatzailea: Artalde.

20:00 Kontzertua: Zarauzko Schola Cantorum Santa Maria La Real eta Elgoibarko Parrokiako Abesbatza. San Bartolome Parrokian. Antolatzailea: Parrokiako Abesbatza.

28 DOMEKA

11:00 Perretxiko erakusketa, Kultur Etxeko sotoan. Antolatzailea: Karakate Mikologia elkarte.

11:00-19:00 Elgoibarko Artisauen Azoka, Maalako parkean. Antolatzailea: Artalde.

12:30 Kontzertua: Elgoibarko Udal Musika Banda. Herriko Antzokian, musika eskolako umeekin. Zuzendariak: Gorka Mujika eta Iker Nausia.

1. *Fanfare and triumph* (J. Aweringen)

2. *Legends of soul* (J. Wasson)

3. *Expo 70* (Paul Yoder)

4. *Mary's Boy child* (Hairston Sparke)

5. *Somethin' stupid* (R. Kerner)

6. *Shrek dance party* (P. Murtha)

29 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabeakuntza tailerra: Gure ongizateari kalte egiten dioten pentsamenduak. Berdintasun Sailak antolatuta, Loredi Salegik eskainiko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

30 ASTEARTEA

18:00 Literatura tailerra: *El mundo de ayer* (Stefan Zweig). Consuelo Carrere-ekin, Udal Liburutegian. Antolatzailea: Haizea.

8 EGUENA

18:00 Hitzaldia: Dislexia. Dislebi elkar-terko kideek eskainiko dute, Udal Liburutegian.

19:00 Liburuaren aurkezpena: *Villamayor de Markina, Elgoibar deitua*. Javier Elorza historialariak aurkeztuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

21:30 Mendi Emanaldiak: Joseba Elustondo eta Jon Garate eskalatzaile elgoibartarrek Patagoniako granitozko mendigoretara egindako bidaiak azalduko dute, *Kotoizko Zaindariak* dokumentalarekin. Herriko Antzokian. Antolatzailea: Morkaiko Mendizale Elkarte.

KINTO-OSPAKIZUNEN EGUNA

Urriak 26, 27 eta 28

26 BARIKAKUA

18:00 Jaiaren hasiera. Foodtruck. Maalako parkean.

21:00 Kontzertua, Insania Crew taldearekin.

27 ZAPATUA

11:00-02:00 Foodtruck, artisauak, umeentzako tailerrak... Maalako parkean.

23:00 Kontzertua, Puro Relajo taldearekin.

01:00 DJ saioa.

28 DOMEKA

11:00-20:00 Foodtruck, artisauak... Maalako parkean.

28:00 Indian Feathers.



I. URTEURRENA

Eugenio Gonzalez Larrea

2017ko urriaren 27an hil zen, 79 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriaren 27an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.

Joango zaretanoi aldeztu aurretik eskerrak.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-20:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

26 BARIKAKUA	27 ZAPATUA	28 DOMEKA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia
29 ASTELEHENA	30 MARTITZENA	31 EGUAZTENA
Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego
1 EGUENA	2 BARIKAKUA	3 ZAPATUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Etxeberria
Iluntzean *Oruesagasti	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean *Ibañez
4 DOMEKA	5 ASTELEHENA	6 MARTITZENA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria
Iluntzean *Ibañez	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria
7 EGUAZTENA	8 EGUENA	9 BARIKAKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Etxeberria

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauez: 22:00-09:00

La Fuente - Sostoa kalea,10 (Eibar) - 943 254 410

Zinea (Herriko Antzokian)



'Book club'

27 Zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)

28 Domeka 19:00

29 Astelehena 21:30

1 Eguena, 19:00

'Luis eta estralurtarrak'

28 Domeka, 16:30

'Ola de crímenes'

2 Barixakua, 21:30

3 zapatua, 19:00 / 22:15

4 domeka, 19:00

5 astelehena, 21:30

'Los increíbles 2'

4 domeka, 16:30

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, urriak 28an, **03:00etan, ordubetez atzeratu beharko** da ordularia.




ELGOIBARKO MERKATARIONTZAKO OHARRA LAGUNDUKO AL DIGUZU ELGOIBARKO IZARRAREN **TONBOLA** OSATZEN?



Aurreko lau urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Tonbola opariz janzteko, baina, zure laguntza behar dugu. Trukean BARRENen eta egunean bertan ere, emango dugu zure eskuzabaltasunaren berri. Opariren bat emateko prest zaudetenekok, deitu 943 741 626 telefono zenbakira edo idatzi elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus posta elektronikora abenduaren 1a baino lehen.

Eskerrik asko!






Kultur Etxe aurrean lurra altxatuta dago: “Kultur Etxe aurreko lur zoruan adokinatua apur bat altxatuta dago. Jende askok estropozu egiten du altxatuta dauden harri horiekin, eta emakume bat erori ere egin zen. Eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea”.



Kiroldegitik IMHra doan espaloian baldosa bat konpondu dute eta zaharra bertan lagata dago: “Baldosa bat apurtuta zegoen kiroldegitik IMHra doan tarte horretan, eta eskertzekoa da konpondu izana. Berria jarri ostean, baina, zaharra han bertan laga dute. Dagokionari eskertuko genioke apurtutako baldosa hori jasotzea. Eskerrik asko”.



Konpondu dute zuhaitza kendu ostean espaloian gelditu zen zuloa: “Pedro Mugurutzako etorbideko espaloian zuhaitz bat kendu zuten, baina zuloa hantxe utzi zuten, estali gabe eta itxiturarik gabe. Emakume batek ez zuen zuloa ikusi eta lurrera erori zen, sekulako kolpea hartuz. Eskertzen dugu konpondu izana.”



I. URTEURRENA

Maria Teresa Lizundia Muguerza

2017ko urriaren 30ean hil zen, 77 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, urriaren 27an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrenean
eramango zaitugu betiko.***





Innovation
that excites



APROBETXATU
WLTP ARAUDI BERRIA ETA
LORTU **NISSAN X-TRAIL BAT**
LIKIDAZIO PREZIOAN. 50 DITUGU!
GAURSAN BAKARRIK.

GAURSA

Otaola Hiribidea, 22 - 20600 Eibar - Tel. 943 82 09 74

Kontsumo mistoa: 4,9 - 6,4 l/100 km. CO₂ isurpenak: 129 - 149 g/km. Europar Batasuneko araudiaren arabera homologatutako kontsumoa.

KAIKO, DEBABARRENA

Osasun arreta
hobea Deba-
barrenerako.

EIBAR OSPITALE BERRIA

Ongi etorri osasun azpiegitura berri honetara: gertuago izango gaituzu, osasun-zerbitzu berrieekin. Debabarreneko biztanle guztiek arreta hobea eta hurbilagoa izango duzue.

Zure zerbitzura urriaren 29tik aurrera. Eibar Ospitale berriaren irekiera eta zerbitzuei buruzko informazioa:

943 03 29 00
eibarospitalea@osakidetza.eus

